

## **IRUÑEKO DEKLARAZIOA PERTSONA NAGUSIEN ESKUBIDEEN INGURUAN**

ADINEKO PERTSONAK: PRIMERAKO ONDAREA

### **PERTSONA NAGUSIEN ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA:**

. Kalitatezko bizimodu osasuntsurako eskubidea, irizpide holistiko batetik ulertua, elementu kognitiboak, emozionalak, sozialak eta parte hartzaileak uztartzeko gai izanen dena, betiere adineko pertsonen nortasun eta duintasuna babestuz.

. Bizitza publikoan, gizartean eta politikan esku hartzeko eskubidea, nor bere kabuz zein kolektiboki; ahultasun eta makaltasun, desgaitasun eta menpekotasun egoerak sahiestu eta arinduko dituen zahartzaro aktiboa bultzatuz.

. Elkarrendako aberasgarria izanen den belaunaldiarteko gizarteratzea sustatuko duten jarduera edota tresna publikoak erabiltzeko eskubidea.

. Norberak bere bizimodu eta aisialdia kudeatzeko eta maite dituen senideekin gozatzeko eskubidea izatea, ahal delarik, bere ohiko ingurunean egotea bermatuz.

. Geriatria arreta espezializatua jasotzeko eskubidea (ospitalean eta anbulatorioan). Diziplina anitzekoa, integrala, kalitatezkoa eta, gaixotasuna beharrea, pertsona ardatz izanen duena; betiere, Geriatria eta Gerontologian adituak diren profesionalen eskutik jaso.

. Eskubidea pertsona nagusiekin harremanetan dauden profesionalek geriatria eta gerontologian aritzeko beharrezko prestakuntza egokia izan dezaten, eta profesionalen kopurua gizartearen benetako beharrekin bat etor dadin.

. Boluntarioritza planetan aktiboki parte hartzeko eskubidea, euren esperientzia pertsonal eta profesionala partekatzeko eta dituzten ezagutzak, printzipioak eta balioak transmititzeko aukera edukiz.

. Alor pribatu eta publikoan erabat gizarteratzeko eskubidea. Lanari, gizarteari, kulturari eta osasun arretari eragiten dioten bazterketa eta diskriminazioa eragiten duten adinarekin lotutako aurreiritziak alde batera utziz.

. Gaitasun fisiko eta kognitiboak kalteturik daudenean ere, arreta jasotzeko modua, lekua eta zaintzaileak aukeratzeko eskubidea eta, beharrezkoak balira, zaintza aringarriak jasotzekoa.

. Aurretiazko borondateen agiria idazteko eskubidea izatea, momentuan-momentuko egonezinak lasaituz eta protagonistendako eta euren senideendako amaiera egokia ziurtatuz eta ahultasun edo kalte kognitiboko momentuetan duintasuna mantentzen lagunduko dioten profesionalen laguntzaz.

. Hedabideek sustatu ohi duten irudi negatiboaren aurrean, gizartean zahartzearen eta zahartzaroaren gaineko irudi positiboa transmititua izateko eskubidea.

- . Jasotako zainketa eta zerbitzu orotan, honako printzipio bioetikoak beteak izateko eskubidea: kalterik ez egitea, justizia, autonomia, ongintza eta duintasun eta intimitatearen errespetatzea.
- . Mendekotasunaren arreta behar duten pertsonen, bereziki pobrezian daudenei, zerbitzua eskuragarriago bihurtuko dien erabaki ekonomikoak hartuak izateko eskubidea.
- . Eskubidea landa eremuan mendekotasunaren arretarako zerbitzu eta baliabideen mapa bat garatu dadin, zerbitzuak pertsonengana hurbilduz eta adineko jendeari euren inguruetik aldendu behar ez izateko aukera emanaz.
- . Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako zentru eta zerbitzuen kalitatea hobetuko duten estrategiak indarrean jartzeko eskubidea (etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, ospitaleak eta zaharren egoitzak).
- . Erabakiak diziplinarteko elkarlanaz hartuak izateko eskubidea (arkitektotniko, teknologiko, sozial eta medikuntzazkoak), zenbait zerbitzu eskainiz, pertsonak euren etxean bertan zahartzea bultzatuz: komunitatea, auzoteria eta tokiko eragileak, lehiatila bakarrean.
- . Gaixoa sendatzen laguntzeko eta familia zein gizarte bizikidetzara bultzatzeko, gaixotasun neurodegeneratibo (dementia, esate baterako) eta prozesu kronikoei buruzko informazioa gizartean zabaltzeko eskubidea.
- . Eskubidea administrazio publikoek eta gizarteak bazterketa, isolamendua eta bakardadea ekiditeko ekimenak egin ditzaten.

Iruñean, 2016ko urriaren 1ean.